# Irudi lauak

## Poligonoen perimetroa




Unaik bere lursaila hesitu nahi du. Zenbat metroko hesia beharko du?

Zenbat metroko hesia behar duen jakiteko, lursailaren aldeen luzerak batu behar dira.

Batura hori **perimetroa** da.

35 m + 43 m + 29 m + 45 m = 152 m

Unaik 152 m-ko hesia behar du.

Poligono baten perimetroa haren aldeen luzeren ____________ da.

1. Kalkulatu poligono bakoitzaren perimetroa.










P = ________ cm P = ________ m P = ________ m

2. Irakurri, egin argazki bakoitzaren krokisa (marrazkia) eta ebatzi.

Eleneren ikasgelan, horma-irudi bat egiten ari dira azken txangoko argazkiekin. Argazki bakoitzaren ertzean zinta bat itsatsi dute, markoa balitz bezala.
Zer luzera dute argazki hauen zintek?

- 12 cm-ko aldea duen argazki karratu bat. _____ cm
- 15 cm-ko luzera eta 10 cm-ko zabalera duen argazki laukizuzen bat. ____ cm

